

1. ARTIKULUA: BALDINTZA OROKORRAK.

1.1. Xedea: Baldintza Teknikoen Agiri honen eta dituen eranskinen xedea da **ENERGIA KONTSUMOA ETA CO2 EMISIOAK MURRIZTEKO ENERGIA ZERBITZUEN HORNIDURA ETA INSTALAZIO TERMIKO ETA ELEKTRIKOEN BERME OSOKO MANTENTZE LANA** kontratatzeko indarrean egon beharko duten prestazioen irismena eta baldintzak arautu eta zehaztea. Udal instalazio hauetarako egingo dira kontratazioak:

- DONOSTIAKO KIROLETAKO UDAL PATRONATUAK ZUZENEAN KUDEATZEN DITUEN KIROL INSTALAZIOAK, baldintza tekniko partikularren agiriko A eranskinean deskribatzen direnak.
- KONTRATUAREN INDARRALDIAN KUP-AREN KUDEAKETAPEAN GERATU ONDOREN KUP-AK ADJUDIKAZIODUNAREN ESKU UTZI DUEN BESTE EDOZEIN KIROL INSTALAZIO, A eranskinean deskribatua, ETA/EDO EDOZEIN INSTALAZIO BERRI.

1.2. Helburuak: kontratu honen bidez kontsumoa murriztea sustatu nahi da, kudeaketan hobekuntzak eginez eta energia aurrezte eta energia eraginkortasun handiagoa bultzatzen duten ekipamendu eta instalazioak eskuratuz.

- 2014ko kontsumo datuen aldean, kontsumoan gutxienez % 10 aurrezteko xedea ezarri da, kWh-tan neurtuta, kontratuaren xede diren instalazio guztietarako.
- Gainera, CO2 emisioak murrizteko, guztizko kontsumoa murriztea ekarriko duen murrizketaz gain, energia elektrikoa erabili beharko da, % 100 iturri berriztagarrietatik eratorria.

1.3. Nahitaezko prestazioak: kontratatu beharreko zerbitzuen helburua da nahitaezko prestazio hauek gauzatzea:

- **P1 prestazioa - (NAGUSIA) Energia eraldatuaren hornidura:** edozein motatako energia elektrikoko horniduraz ari gara, barne hartuta kontratuaren xede diren instalazioen funtzionamendu egokirako beharrezkoa den kudeaketa energetikoa; energia horniduraren kudeaketa, kalitate kontrola, kantidadea eta erabilera, eta hornikuntza bermeak.
- **P2 prestazioa - Mantentze lanetako zerbitzua:** mantentze prebentiboko eta zuzentzaileko zerbitzua ematea da xedea, instalazioen eta haien osagai guztien funtzionamendu eta garbiketa egokia lortzeko, bai eta instalazioen eta haien osagai guztien errendimenduak hasierako balioan mantentzeko ere.
- **P3 prestazioa - Berme osoa:** konponketak egitea, instalazioetan hondatuta dauden elementu guztiak ordezkatzuz, baita zaharkituta daudenak berritzea ere, berme osoaren modalitatean.
- **P4 prestazioa - Instalazioak hobetzeko eta berritzeko nahitaezko obrak:** instalazioak hobetzeko eta berritzeko KUParen proposamenez Baldintza Teknikoen Agiriaren G eranskinean zehazten diren obrak gauzatzea. Kontratua amaitzean, gauzatutako instalazioak KUParenak izango dira.
- **P5 prestazioa - Instalazioak hobetzeko eta berritzeko borondatezko obrak:** enpresa lizitatuak P4 prestazioan jasota ez dauden instalazioetan aldaketak edo hobekuntzak egitea proposatu ahalko dute. Enpresa adjudikaziodunak proposatu, gauzatu eta finantzatzeko ditu instalazio horiek, betiere KUPeko zerbitzu teknikoaren alde aurreko onespenerekin, inolako ondorio ekonomikorik izan gabe kontratu honen aurrekontuan.

Halaber, kontratuaren indarraldian, KUPak bere onespena eman ahalko die enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede diren instalazioetan egiteko proposatu dituen hobekuntzei, kontratuaren xede diren instalazioetan asko aurrezteko aukera emango duten teknologia aldaketan edo bestelako berrikuntzen ondorioz.

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da haien kudeaketaz kontratazio aldian, eta bere gain hartuko du inbertsioaren itzulera- eta/edo amortizazio-denborak ez betetzeko arriskua. Kontratua amaitzean, egikaritutako instalazioak KUParenak izango dira, baldin eta amortizazio aldia kontratuaren indarraldiaren barruan amaitzen bada. Osterantzean, doikuntza ekonomikoa egingo da enpresa adjudikaziodunarekin hondar balio bat ezarri, egindako inbertsioaren eta kontratuaren indarraldian lortutako aurrezkiaren arteko aldea oinarri hartuta.

Enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu P5 prestazioko obra eta instalazio guztiak, dagokion obra- edo instalazio-proiektuaren idazketa, hala badagokio, bai eta obra zuzendaritza, segurtasun- eta osasun-azterlana, azterlan geoteknikoa eta, oro har, egin beharreko inbertsioekin lotutako gastu guztiak ere.

2. ARTIKULUA: JARDUERA EREMUA.

Kontratu honen xede diren instalazioak **A eranskin**ean daude zerrendatuta: «Baldintza Teknikoen Agiri honetako Kontratuaren xede diren eraikin eta instalazioen zerrenda».

2.1. Jarduera eremua:

- KUParen eraikinetan dauden instalazio termiko guztiak, hala erregai energetikoa kargatzeko harguneak nola kontsumo puntua, barne hartuta berotzeko, hozteko eta ur bero sanitarioa ekoizteko instalazioen gela, bere osagai guztiekin, eta igerilekuen, spa eremuen eta instalazioetako erabiltzaile zein langileek erabiltzeko guneen egokitzapen termikoa, agiri honetan adierazitako baldintzen arabera. Era berean, barne hartzen ditu instalazio termikoetako hustuketak, betetzeak eta purgatzeak, egin behar diren guztietan.
- Halaber, KUParen eraikinetan dauden instalazio elektriko guztiak, sarreratik, enpresa hornitzailearen kutxatik hasita, ekipamendu elektrikoaren azken kontsumo punturaino, barne hartuta: transformazio zentroak, koadro elektrikoak eta haien elementu guztiak (kontaktoreak, diferentzial magnetotermikoak...), saskien, harmailen, pistak bereizteko gortinen, ateen eta abarren motor elektrikoak; euri urak eta ur beltzak xukatzeko ponpak, kloroarenak, bromo-flokulatzailearenak; eremu guztietako (pistak, igerilekuak, aretoak, gimnasioak, lokalak, kafetegiak, kanpoko eremuak, korridoreak, aldagelak, biltegiak...) argiztapen fokuak eta luminariak; lokal eta ebakuazio ibilbide guztietako larrialdietako eta ordezkotako argiztapena (eskailera balizak barne); elikadura iturriak, indar harguneak eta instalazio elektrikoari dagozkion edo elektrizitatearekin funtzionatzen duten instalazioko beste elementu guztiak.
- KUPeko instalazio guztien energia kudeaketan eragina duten eta/edo hura hobetzen duten ekipamendu eta sistema guztiak, nahiz eta energia zuzenaren eta/edo eraldatuaren kontsumoan oinarritutako sistemen mende ez egon, barne hartuta energia kontrolatzeko, zenbatzeko, doitzeko eta neurtzeko sistemak eta kalitate energetikoko sistemak.
- Ura ekoizti, biltegiratu eta banatzeko instalazio eta elementu guztiak, ura neurtu eta banatzeko ekipamenduak, iturgintzako instalazio orokorrak, txorrotak, instalazio sanitarioak, ur tangak, igerilekuen ontziak, igerilekuen tratamendu fisiko-kimikorako eta arazketarako sistemak, ura deskaltzifikatzeko sistemak, presio ekipamenduak, etab. Halaber, ur grisak eta beltzak biltzeko, tratatzeko eta/edo haien balorazio energetikoa egiteko elementuak, barne

hartuta uron hodiak, eraikinetako estolderia elementuak, saneamendukoak, hustubideak, zorrotanak eta kutxatilak, horien tratamendua eta udal saneamendura bidaltzea.

2.2. Instalazioak onartzea: enpresa adjudikaziodunak gaur egungo instalazioak onartzen ditu eta horien berri du, alderdi hauetan:

- Eraikinen izaera, egoera eta sistemak.
- Kudeatu behar dituen instalazio eta ekipamendu guztien egoera.
- Eraikinen eta haietako instalazioen segurtasunarekin eta berezitasunarekin lotutako sarbide baldintza bereziak.

3. ARTIKULUA: ENPRESA LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO GUTXIENEO BALDINTZAK.

Administrazio Klausula Zehatzen Agirian jasotakoaz gain, lizitatzailerik gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lizitazio honen xede diren eraikin eta instalazio guztiak ikusi eta ikuskatzea. Ezingo dira baldintza agiri honetan eta dagozkion eranskinetan emandako datuez baliatu kontratuaren indarraldian prezioa aldatu nahi izateko.
- Instalazioak bisitatzeko, KUPeko Obren eta Mantentze Lanen Sailarekin jarriko dira harremanetan, eta eraikin bakoitzean bisita egin izanaren ziurtagiria zigitatuko da. Ziurtagiri hori A gutun azaleko (dokumentazio administratiboa) VII. eranskinean sartuko da.

4. ARTIKULUA: KONTRATUA GAUZATZEAN BETE BEHARREKO BETEBEHARRAK.

Enpresak zerbitzu egokia emateko behar adina langile izango ditu, kopuruari eta kualifikazioari dagokienez. Enpresa lizitatzailerik organigrama bat aurkeztu beharko dute, zeinak alderdi hauek jasoko baititu: erabilitako giza baliabideak, eraikinean fisikoki eta benetan zer ordutegitan egongo diren, eta ordutegi horren aurreikusitako banaketa, gidaritzako, mantentze lan prebentiboko eta mantentze lan zuzentzaileko eginkizunei dagokienez.

Adjudikazioaren unean bere egoitza soziala edo ordezkari bat Gipuzkoan izan beharko du, eta behar adina langile izango ditu zerbitzu egokia emateko eta, eskatuz gero, dagokion arreta bermatzeko. Halakorik ezean, enpresa adjudikaziodunak kontratua indarrean jarri denetik 6 hilabeteko epean lurralde horretan ordezkari bat eratzeko berriarazo konpromisoa hartuko du.

Adjudikaziodun izanez gero, eraikinetan esku hartuko duen taldearen titulazioa erantsi beharko da.

Mantentze lanetan espezialista den ingeniari tekniko bat edo goi mailako ingeniari bat izan beharko du, zerbitzuaren arduradun izateko KUPeko arduradunen aurrean; haren izendapena KUPari jakinaraziko zaio eta hark onartu beharko du. Ingeniari horrek lan hauek egin beharko ditu, besteak beste:

- Zentroko arduradunekiko harremanaz arduratuko da, eta txostenak egingo ditu hilean behin.
- Agiri honen A eranskinean zerrendatutako instalazioen funtzionamendu egokiaz arduratuko da.

- Kontratuko prestazio guztiak planifikatu eta kontrolatuko ditu, eta emaitzak mantentze lanen liburuetan edo dagozkion txostenetan jasoko ditu, beharrezkoa denean.
- Kontratututako prestazioa lortzeko era guztietako erabaki eta xedapenak hartuko ditu.

5. ARTIKULUA: OINARRIZKO BALDINTZAK.

Enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua gauzatzeko dakartzan arriskuak. Enpresa adjudikazioduna arduratuko da kontratuaren xede diren instalazioen funtzionamendu egokiaz.

KUPak ez du izango harreman juridikorik, ez lan harremanik, ez bestelakorik enpresa adjudikazioduneko langileekin kontratuaren indarraldian, ezta kontratua amaitzean ere.

6. ARTIKULUA: BALDINTZA TEKNIKOAK.

6.1. Aplikatu beharreko araudia betetzea:

Lizitazio honen xede diren lanen ondoriozko prestazio guztiak gauzatzeko orduan, nahitaez bete beharko dira indarrean dauden araudi tekniko guztiak, segurtasunari eta higieneari buruzkoak eta laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumenari buruzkoak, bai eta eraikinen eta instalazioen ezaugarriengatik aplikagarriak diren guztiak ere.

Enpresa adjudikaziodunak dagozkion izapide guztiak egiteko behar den ingeniari emango du, kontratuaren xede diren instalazioak behar bezala legezkatuta edukitzeko, eta ez du inolako kostu gehigarri izango KUParentzat.

Instalazioak hobetu eta egokitzeko obra guztiak araudi espezifikoaren arabera egin beharko dira: obra lizentziak, proiektu teknikoak eta egikaritze proiektuak, agiriak, ziurtagiriak eta kalitate akustikoko helburuak, bai eta kontratuaren xede diren obrek eta/edo eraikinek eskatzen duten dokumentazio guztia ere.

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da kontratatzen diren inbertsio eta erreformen zuzendaritza teknikoaz, KUPeko arduradunek gainbegiratuta. Era berean, enpresa adjudikazioduna arduratuko da egindako instalazioen azken ziurtagiria emateaz.

6.2. Kontratuan aplikagarriak diren energien horniduraren gutxieneko kalitatea:

Kontratuari dagozkion energien kalitatea aplikatu beharreko araudiek arautuko dute.

6.2.1. Enpresa hornitzailearen bidez banaketako sare publikotik datorren hornidura elektrikoa.

Ondorio guztietarako, enpresa adjudikaziodunak konpainia hornitzaile gisa jardungo du KUParentzat. UNE-EN 50160 arauaren betekizunak bete beharko ditu, eta parametro horiek A motako sare analizagailuen bidez monitorizatu beharko dira etengabe, haien betetze maila ziurtatzeko hala KUPari nola enpresa adjudikaziodunari, behar izanez gero hornidurari buruzko erantzukizunak eskatzeko enpresa hornitzaileari. Enpresa adjudikaziodunak A motako sare analizagailu horiek instalatu beharko ditu gaur egun ez dauden lekuetan.

Instalazio guztiek energia primario kontsumitua aldika neurtzeko kontagailuak izango dituzte, M-bus motakoak; horiei esker, urruneko kudeaketa eta aldikako kontrola egin ahalko da,

kontsumitutako energiaren kudeaketa kontrolatze aldera. M-bus motako kontagailuak instalatu beharko dira instalatuta ez dauden tokietan.

Energia elektrikoa % 100 iturri berriztagarrietatik eratorri beharko da. Puntu hori frogatu ahal izateko, enpresa adjudikaziodunak zerrenda bat entregatuko du urte amaieran. Horretan, instalazio bakoitzaren izena, helbidea, HPKB zenbakiak, urteko kontsumoa eta puntu horretan kontsumitutako energia berriztagarriaren berme kopurua (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak emanak) jasoko dira.

6.2.2. Enpresa hornitzailearen bidez banaketako sare publikotik datorren gas hornidura.

Ondorio guztietarako, enpresa adjudikaziodunak konpainia hornitzaile gisa jardungo du KUParentzat. Indarrean dagoen 1434/2002 Errege Dekretuaren betekizunak bete beharko ditu, horniduraren kalitateari eta jarraitutasunari dagokienez, eta KUPak une oro jakinaren gainean egon beharko du Errege Dekretuan ezarritako hornidura balioen inguruan.

Hornidura behar bezala ziurtatutako kontrol elementuen bidez kontatu beharko da, energia kudeaketako M-bus sisteman integratu ahal izateko. Hala, kontaketa m³, Kw_{hpc}i eta pcs unitateetan egin ahalko da urrunetik, eta instalazio bakoitzari hornitutako gasaren bero ahalmena hilean behin ziurtatuko da. M-bus motako kontagailuak instalatu beharko dira instalatuta ez dauden tokietan.

Era berean, ezaugarri tekniko bereko kontaketa elementuak egon beharko dute, zeinak aukera emango baitute gas kontsumoak Kw_{hpc}s unitateetan neurtzeko kogenerazio ekipoetan, galdaretan, berogailuetan eta gasa kontsumitzen duten elementuetan, baldin eta elementuok eraikinen energia kontsumoari eta kudeaketa integralari dagokienez duten garrantziagatik komenigarria bada datu horiek lortzea instalazioen balantze energetikoa izateko. Enpresa adjudikazioduna arduratuko da kontagailu horiek instalatzeaz, lehendik ez dauden tokietan.

6.2.3. Enpresa hornitzaile ziurtatuetatik datorren pellet hornidura.

Horniduraren kalitateari eta jarraitutasunari dagokienez indarrean dagoen 1434/2002 Errege Dekretuaren betekizunak bete beharko ditu, Kiroletako Udal Patronatua hornitzen duen enpresa gisa jardunez eta Patronatuari parametroen eta horien aldaketen berri emanez.

Hornidura behar bezala ZIURTATUTAKO kontrol elementuen bidez kontatu beharko da, energia kudeaketako M-bus sisteman integratu ahal izateko. Hala, kontaketa m³, Kw_{hpc}i eta pcs unitateetan egin ahalko da urrunetik.

Arauari egokitzen ez zaizkion eta birziklatzearen ezpaletatik datozen bestelako pellet batzuk erabili nahi badira, eta/edo zehaztu gabeko beste erabilera batzuk egin nahi badira, UNE-EN 14961-1 eta UNE-EN 14961-4 arauetan eta Eusko Jaurlaritzaren ingurumen araudian ezarritakoa bete beharko dute. Erregai horrek Kiroletako Udal Patronatuaren eta Donostiako Udaleko Ingurumen Sailaren oniritzia izan beharko du.

Pellet galdarek eta horien banaketako azpisistemek ekoizitako eta eraldatutako energiaren kontagailuak izan beharko dituzte, haien errendimendua eta elementu terminalen kontsumoaren ezagutza etengabe eguneratuta izateko.

6.2.4. Energia ekoizteko erabili beharreko beste lehengai batzuk.

Lehen deskribatutako lehengaietan aurreikusi gabeko beste lehengai mota bat erabiltzen bada, eta iturri ez berriztagarrikoa bada, haren kalitatea ziurtatu beharko da onartutako arauen arabera, eta haren berotze ahalmena, ingurumen inpaktua eta hura aplikatzearen justifikazioa adierazi beharko dira.

Era berean, sistemara sistema publikoetatik sartzen diren lehengaiak edo kanpoko energia primarioko soberakinak erabili ahal izango dira, esaterako, zerbitzu publiko ziurtatuen kimaketetatik datozen ezpalak, kontratuari atxikita ez dauden beste eraikin batzuetako energia termikoaren edo hozte energiaren soberakinak eta/edo planteak daitezkeen beste sistema batzuk.

6.3. Energiaren eta sistemen espazio eta erabileretan bermatu beharreko baldintzak:

Instalazioetan energia primarioa erabiltzearen xede nagusia erosotasun parametro termikoak, airearen kalitatearekin lotuak, akustikoak eta argiarenak bermatzea da, horiek baitira energia kudeaketako kontratuaren oinarria.

Horregatik, energia kudeaketaren helburu nagusietako bat da baldintza teknikoen agiri honetan ezarritako mugen barruan mantentzea, kontuan hartuta, batetik, ahalik eta energia gehien aurrezteko helburua eta, bestetik, erosotasun parametro horiek bermatu eta kontrolatzeko aplikatuko diren araudi espezifikoak betetzea.

6.3.1. ENERGIA TERMIKOA

a) Parametroak.

C eranskinean eta, oro har, eraikinetako eta lantokietako instalazio termikoei buruzko indarreko legerian jasoko dira gai hauen inguruko parametroak: tenperatura, hezetasun erlatiboa, airearen kalitatea, guneetako aireztapena eta zarata, kontsumoko eta itzulerako puntuetako ur bero sanitarioaren tenperatura eta igerilekuetako uraren tenperatura (instalazioak irekitzeko ordutegi eta egutegiei jarraikiz).

b) Aireztapena.

Behar den neurrian bermatuko da lokalen barruko aireztapena eta airearen kalitatea, eta airearen abiadura egokia erabiliko da, instalazioak dituzten eraikin eta/edo establezimenduen izaeraren eta erabileraren arabera, indarrean dagoen araudiari eta C eranskinean ezarritako parametroei jarraikiz.

c) Ur bero sanitarioaren ekoizpena.

Instalazio egokiak dituzten eraikin eta establezimendu guztietarako urte osoan ur bero sanitarioa ekoizten dela ziurtatuko da, haien erabileraren eta araudi aplikagarrien arabera.

d) Mantendu beharreko ingurumen- eta erosotasun-baldintzen irizpideak.

d1) Berokuntza, hozketa eta hezetasun erlatiboa (HR)

Enpresa adjudikaziodunak barneko tenperatura, hezetasun erlatiboa eta airearen abiadura jakin batzuk mantenduko ditu berogailua eta/edo hozte sistema duten lokaletan, indarrean dagoen araudiaren eta C eranskinean zerrendatutako erosotasun baldintzei jarraikiz, eta eraikinen edo eremuen izaeraren eta erabileraren arabera.

2007ko RITE Erregelamenduaren eta haren zehaztapen teknikoan (EITak) eta lege horren aldaketan edo ordezkotako araudiaren arabera neurtuko dira.

Instalazioak jendearentzat irekita dauden bitartean funtzionatuko dute sistemek, bai eta jendearentzat itxita daudenean ere haien barruan lanak egiten ari badira edo hala eskatzen duen edozein jardura gauzatu ari badira. Ekipamenduek ere erabat edo partzialki martxan jarraitu ahal izango dute, baldin eta, mantentze lanak, guneen egokitzapenak edo beste arrazoi batzuk direla-eta, ekipamenduak martxan mantendu behar badira.

Enpresa adjudikaziodunak berokuntza edo hozte-sistema piztu edo itzaliko ditu KUPak eskatu eta hurrengo hogeita lau orduen barruan, eta ahalik eta azkarren baieztatuko du posta elektronikoko bidez.

d2) Ur bero sanitarioaren ekoizpena.

Enpresa adjudikaziodunak erabilera sanitarioetarako ur beroa prestatuko du, erabilerarekin bateragarria den gutxieneko tenperaturan, aitzat hartuta banaketa sareko galerak eta indarrean dagoen araudiaren eskakizunak betez, bereziki legionelosiaren prebentzioari dagokionez.

d3) Igerilekuak, wellness, spa,

Enpresa adjudikaziodunak igerilekuetako eta *wellness* eta spa eremuetako uraren tenperatura eta eremuetako ingurumen baldintzak C eranskinean ezarritako parametroen arabera mantenduko ditu, kontuan hartuta egunero berritu behar dela igerilekuetako eta *wellness* eta spa eremuetako ura, ontziak hustu behar direla, haietako beroa berreskuratu behar dela eta baldintza horietan eragina izan dezaketen gainerako inguruabar guztiak.

d4) Tenperatura bermeen mugak.

Lehen zehaztutako berokuntzako eta hozketako barne tenperaturak bermatuko dira kanpoko tenperatura ez bada 0° C baino txikiagoa berokuntza aldian eta 27° C-tik gorakoa hozketa aldian, IGELDOko estazio meteorologikoan.

Muga horiek azpitik edo goitik gaintzen badira, hurrenez hurren, enpresa adjudikaziodunak instalazioen potentziarekin eta funtzionamenduaren segurtasunarekin lor daitezkeen berokuntza-eta hozketa-baldintzarik onenak ziurtatuko ditu.

e) Ihesen detektagailuak.

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartu beharko du galdaren geletan instalatutako gas detektagailuak behar bezala funtzionatzen dutela kontrolatzeko eta hala mantentzeko. Makina geletan instalatutako gas detektagailu eta alarman instalazioa, mantentze lanak, berrikuntza eta abar enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Detektagailu horiek urruneko kudeaketako sistema batean integratu beharko dira, enpresa adjudikaziodunak eta KUPak urrutitik kontrolatu ahal izateko.

6.3.2. ENERGIA ELEKTRIKOA

a) Parametro orokorrak

Behereko Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoaren (BTEE) arabera parametroak mantenduko dira lur lineetan, tximistozetat, larrialdiko eta ebakuazioko argiztapenean, ordezko argiztapenean, linean edo koadroen isolamenduetan eta aretoetako, kirol pistetako, gimnasioetako, lan eremuetako, bulegoetako eta abarretako argiztapenetan, kasu bakoitzerako dauden arau espezifikoaren arabera.

Era berean, kontsumo elektrikoaren parametro ez-espezifikoak errespetatu behar dira (temperaturak, hezetasun erlatiboa, airearen abiadura, etab.), baldin eta zuzenean lotuta badaude kontsumo elektrikoarekin, eta ezingo dira aldatu zuzeneko kontsumoaren murrizketen bidez, parametroa aldatzen ez duen eta energia elektrikoa aurrezteko dakarren ordezko aukeraren bat aurkeztu ezean.

b) Argiztapen parametroak

Lehiaketaren xede diren instalazio guztien gune edo lokal bakoitzeko argiztapen mailak bermatuko dira, indarreko araudiari eta baldintza teknikoaren agiri honen C eranskinean ezarritako gutxienezko argiztapen baldintzei jarraikiz.

Maila horiek ez badituzte betetzen eta/edo gainditzen Laneko Segurtasun eta Higienari buruzko 31/1995 Legean barneko espazioetarako ezarritako balioak edo lantokien erabilerarekin lotutako arriskuak ebaluatzeko Gida Teknikoan edo indarrean dagoen beste edozein legetan laneko barne espazioetarako ezarritako balioak, dagozkion zaharberritzeak egin behar dira argiztapen instalazioetan, eta horien zenbatekoa P4 prestazioaren prezioan sartuko da.

Kirol guneen kasuan, UNE-EN12193 arauan (*Argiztapena. Kirol Instalazioetako Argiztapena*) gomendatutako argiztapen mailak beteko dira, edo horri buruzko federazio araudian ezarritakoa, halakorik balego, eta aurrez esandako moduan jardungo da ezarritako balioak betetzen ez badira.

P4 prestazioan luminariak ordezteari buruz zehaztutako inbertsioak egin ondoren, eta kontratuaren lehen urtea amaitu baino lehen, kontratuaren xede diren instalazio guztien argi azterketa egin behar da, agiri honen C eranskinean eta araudi aplikagarrian ezarritako argi parametroak betetzen diren egiaztatzeko.

c) Behere- edo erdi-tentsioko hornidura elektrikoaren baldintzak eta ekipamenduen mantentze lanak.

c1) Transformazio-, indar- eta argiztapen-zentroak.

Enpresa adjudikaziodunak eraikinen eta instalazioen mantentze lanetarako energia hornidura egokiko baldintzen arabera mantenduko ditu eraikinak, eta energia trifasikoaren balioek 380-400 V bitartean soilik fluktuatu ahal izango dute, eta energia monofasikoarenak 240-260 V bitartean.

KUParen transformazio zentroek indarrean dagoen araudiaren arabera hornitu behar dute energia, eta horretarako mantentze lanak aplikatu beharreko araudiaren arabera egin behar dira, barne hartuta baimendutako kontrol erakundeek egindako ikuskapenak.

Enpresa adjudikaziodunak urteko 365 egunetan eta 24 orduz bermatuko du energia hornidura, halako moldean non kirol instalazioetan egiten diren jardueren premia guztiei erantzun baita, baita ohiz kanpoko jardueri dagokienez ere. Horretarako, 24 orduko zerbitzua eduki behar du, zeinak pertsonentzat arriskutsuak izan daitezkeen eta/edo sortutako instalazioen erabilera normala eragozten duten matxura guztiak artatuko baititu, gehienez ere ordu erdiko epean.

Kirol instalazioetako argiztapena piztu eta itzaltzeko moduak optimizatu ahal izango dira, baldin eta bermatuta geratzen badira dagozkien araudiek, UNE arauak, kirol erregelamenduek eta federazioek eskatzen dituzten gutxieneko argiztapen- eta uniformetasun-mailak.

c2) Koadro elektrikoak

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da zerbitzuaren xede diren instalazioetako koadro elektrikoak ondo mantentzeaz. Urtero instalazioetako koadro guztiak ikuskatu beharko dira (indarrarenak, klimatizazioarenak eta igerilekuetakoak, kontzertuetakoak, pistetakoak, saskietakoak, harmaila teleskopikoetakoak, tabernetakoak eta abar). Horretarako, diferentzialak askatzeko probak egingo dira makina homologatu bidezko prozedura normalizatuen bitartez, termografiak egingo dira, bornak estutuko dira, eta abar. Gainera, urteko txosten bat egingo da koadro eta diferentzial magnetotermiko bakoitzari buruz, ondoren enpresa adjudikaziodunaren kontura konpontzeko.

c3) Linea elektrikoak

Oro har, linea elektrikoak kontratuan sartzen dira, baita berme osoaren kontzeptuan ere. Salbuespen gisa, berme osoari buruzko P3 prestazioan soilik, kontratuaren prezioetik kanpo geratzen dira ezkutuko linea elektrikoak, kontratua sinatzean ezin baita jakin zer egoeratan dauden. Ondorio horietarako, hautsi eta konpontzeko obra zibila eskatzen duten elementuak soilik joko dira estalitako elementutzat (ez da hausturatzat hartuko plakak, sabai faltsuak eta antzekoak desmuntatu eta muntatzea).

Kontratuaren prezioaren barruan sartzen dira eta, beraz, enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira ekipamendu, koadro, foku, argi, larrialdietako argi eta entxufe guztiak konpontzeko egin beharreko lineak (lapurreta edo bandalismo kasuetan izan ezik), transformazio zentroetatik koadro orokorretara, koadro partzialetara, motorretara eta ekipamenduetara banatzeko ezkutuko lineak, bai eta energia elektrikoaz instalazioetako elementu guztiak elikatze beharrezkoak diren linea guztiak ere.

c4) Proiektagailuak, haluro fokuak, fluoreszentsia duten argiak, *downlight*, led, kontsumo txikikoak eta argiztapen artifiziala duten ekipamenduak.

Argiztapenaren prebentziozko mantentze lanak egin beharko dira instalazio, kirol pista, gimnasio, belodromo, atletismo pista, pilotaleku estali eta kanpoko pista guztietan eta A eranskinean zerrendatutako instalazio guztietan, halako moldez non ez baita foku bat baino gehiago erreta egongo aldi berean eta 48 ordu baino gehiago.

Mantentze lanen programazioan, bereziki kontuan hartuko da zer instalaziotan behar diren baliabide bereziak (garabiak, jasogailuak, etab.) elementu jakin batzuk (lanparak, abiagailuak, erreaktantziak, etab.) ordezkatzeko orduan, haien balio bizitza aurreikusitako hurrengo doikuntza baino lehen amaitzen delako, zertarako eta instalazioen erabilera ahalik eta gutxien oztopatzeko, betiere KUParen alde aurreko baimenarekin.

Ekipamenduen marka edo modelo aldatzeko, katalogotik kendu dituztelako, edo kontsumoa aurrezte dakarten sistema berriak jartzeko, KUParen alde aurreko baimena beharko da.

Fluoreszentsia bidezko argien kasuan, haluro fokuetarako dauden irizpide berberak mantenduko dira, eta modeloak homogeneizatu beharko dira argiak eta hodiak ordezteko orduan, bai eta erreaktantzien ordezkari balasto elektronikoak jarri ere, energia efizientzia hobetzeko. Era berean, LED teknologia duten argietan, modeloak homogeneizatzeko irizpide bera mantenduko da halakoak ordezteko orduan.

c5) Larrialdietarako argiak, ebakuazio ibilbideak eta balizajea.

Funtzionamendu ordena egokian mantendu beharko dira instalazioetako larrialdiko argiak, ebakuazio ibilbideak eta balizak, kontratuari atxikitako eraikinen ebakuazio baldintzak bermatzeko, baldin eta publikoak erabiltzekoak badira. Ordezkatu beharreko modeloak KUParekin adostuko dira, homogeneizatzeko. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe KUPak ekipamendu horien egoera ikuskatzeko hilean behin egiten dituen azterketak, eta publikoari irekitako guneen arloan eskumena duen agintaritzak egiten dituen ikuskapenak gorabehera.

c6) Mekanismoak, entxufeak, konektoreak, etengailuak, indar harguneak, saskien motorrak, harmailen motorrak, amaierako etengailuak, igerilekuko zenbait produktu dosifikatzeko ponpak, igerilekuetako jasogailu elektrikoak, etab.

Egoera ezin hobean mantendu beharko dira entxufeak, indar harguneak, motorrak, askotariko ekipamenduen amaierako etengailuak, ponpa dosifikatzaileak, kloroa, ph-a, bromoa eta uhertasuna neurtzeko gailuak, igerilekuetako jasogailu elektrikoak eta abar, kontratuaren xede diren instalazioetan funtzionatzen duten ekipamenduak elikatzeko konexioekin, zertarako eta zerbitzua bermatzeko eta BTEEa betetzeko, bai eta erabiltzaileei istripuak eragin diezazkiekeen zeharkako kontaktu posibleak eragozteko ere.

6.3.3. UR BELTZEN, GRISEN ETA EURI UREN SANEAMENDUA

a) Ur beltz eta grisenean saneamendu sarea

A eranskinean zerrendatutako eraikin eta instalazioen saneamendu sistema orokorrak behar bezala mantendu beharko dira, buxadurak eta usainak prebenitzeko; horretarako, unean-unean eskuragarri dauden bitartekoak eta teknologia erabiliko dira. Horretarako, mantentze lan prebentiboko prozedurak, horien maiztasunak, kudeaketa txostenak eta abar ezarri beharko dira.

Era berean, eta mantentze lanetako prebentzio irizpide berberei jarraikiz, ur grisenean behar bezala mantenduko dira eta, hala badagokio, igerilekuetako, dutxetako eta abarretako uren bero sorra aprobetxatu ahal izango da, eta urok berrerabili ahalko dira, baldin eta aplikatzekoa den araudia betetzen bada eta Donostiako Udaleko Ingurumen Sailaren aldeko txostena badago.

b) Euri uren sarea

Estalkitik eta erretenetatik igarotzen den euri ura kontratutik kanpo dagoela joko da; kontratuaren xede diren instalazioetan sartzen diren euri uren gainerako sarea (zorrotan barne) eta horien instalazio barruko hodiak eraikinaren saneamendu orokorraren parte direla joko dira, eta behar bezala mantendu beharko dira hausturak, buxadurak eta abar prebenitzeko, ura udalerriko sistema orokorretara ondo irits dadin edo berrerabil dadin.

6.3.4. UR HOTZAREN HORNIKUNTZA ETA BANAKETA SAREA

a) Ur hotz orokorra, fluxumetro sarea barne

Eraikinetako ur hotzeko sarea mantendu beharko dira, udal sare orokorreko hargunetik hasita instalazioetaraino. Barne hartzen ditu armairuak, guztizko kontagailuak eta partzialak, horien ziurtagiri metrologikoa, banaketa hodiaren sistemak, horien isolamenduak, lotura piezak, errakorrak, euskarriak, txorrotak, fluxumetroak, igerilekuak eta spak betetzeko kontrol sistemak,

automatismoak, buiak, ihinztargailuak eta ura kontsumo guneetara banatzea ahalbidetzen duten sistema eta elementu guztiak, bai eta mantentze lan prebentibo zein zuzentzaile horiek egitea ahalbidetzen duten lan osagarriak ere.

Enpresa adjudikaziodunak legionellaren aurkako iragazkiak instalatuko ditu ur hornidurako hargune nagusietan, araudiak eskatutako iragazkirik ez duten instalazioetan.

b) Ureztatze sistema

Eraikinen ureztatze sistemak mantendu beharko dira, barne hartuta sarea elikatzeko sistemak, euri- eta sare-urak biltzeko putzuak, horien giltza sistemak, buiak, balbula motorizatuak, kudeaketa elektronikoko eta ELESTAn integrazteko sistemak, era guzietako ihinztargailuak eta horien kutxatilak barne.

6.3.5. UR BEROAREN HORNIKUNTZA ETA BANAKETA SAREA

Ekoizpen eta kontsumoko ekipamenduen artean ur beroa banatzeko sistemak eta kanalizazioak mantendu beharko dira, barne hartuta behar bezala banatu, kontrolatu eta/edo doitu eta dosifikatzeko mota guztietako elementu eta ekipamenduak.

Hala, barne hartzen dira giltzak, bridak, manometroak eta termometroak, banaketa ponpak, atzera ezineko balbulak, zirkuituak konpentsatzeko elementuak, espansio ontziak, birzirkulazioko eta/edo banaketako ponpak, trukagailuak, zundak, bibrazioen aurkakoak, bero emisioak murriztea eta energia aurrezteko ahalbidetzen duten elementuen bero isolatzaileak, balbula termostatiko motordunak, bai eta horien material guztietako banaketa hodiak ere, aplikatzekoak diren araudien arabera.

6.3.6. IGERILEKUAK, SPAK, WELLNESS EREMUAK, JACUZZIAK, BERO BERRESKURATZAILEAK ETA ABAR IRAGAZTEKO SISTEMAK.

Igerilekuen, *wellness* eta spa eremuen instalazioetako eta uraren tratamendu mekanikorako instalatzen den edozein ekipamenduren ura iragazi eta arazteko sistema osoak mantendu beharko dira, barne hartuta ura iragazteko ekipamenduak, horien osagaiak, giltzak, bridak, serbomotorrak, balbula motordunak, manometroak, fluxostatoak, iragazketa ponpak, atzera ezineko balbulak, buiak eta abar, bai eta elementu horiek funtzionatzea eragiten duten hodian loturak eta konexio elektrikoak ere.

Era berean, sistemak funtzionatzeko beharrezkoak diren lotutako elementu elektriko, pneumatiko eta bestelako elementu guztiak mantendu beharko dira, esaterako, koadro elektrikoak, konpresoreak, balbulak eta eragingailu pneumatikoak, ura betetzeko eta ponpak eteteko boia sistemak, eskuzko fotometroak, kudeaketa elementuak eta uraren tenperatura, uhertasuna, eroankortasuna eta abar neurtu eta kontatzeko elementuak, ura egoera sanitario egokian mantentzeko.

6.3.7. IGERILEKUETAKO ETA JACUZZIETAKO URAREN KONTROL ETA TRATAMENDU KIMIKOA

Igerilekuetako eta *wellness* eta spa instalazioetako uraren kalitatea kontrolatzen duten sistema elektriko eta elektronikoak mantendu beharko dira, produktuak dosifikatzeko ponpen, entxufeen eta horiekin lotutako gainerako elementu elektriko bidez. Honako hauek ere bai: ponpa dosifikatzaile horiek kontrolatu eta/edo aktibatze elementuak, fabrikatzaileak eta/edo kanpoko ziurtapen enpresek horiei egindako urteko ziurtagiriak, horien askotariko zundak (kloroa, bromoa, ph-a, temperatura, uhertasuna, eroankortasuna, etab.), ura askotariko lanparen bidez desinfektatzeko gailuak, barne hartuta higaduragatik, matxuragatik edo hausturagatik behar diren ordezkotzak (lapurreta edo ekintza bandaliko baten ondorioz denean izan ezik), eta abar. Berriz hornitu edo ordezkapenak egin behar direnean, marka berekoak diren eta eskakizunen antzeko ezaugarriak dituzten ekipamenduak erabiliko dira. Osterantzean, KUParen zerbitzu tekniko baimena beharko da.

Kloraminak suntsitzeko gailu hauek (lanparak barne) mantendu eta ordeztu beharko dira:

Instalazioa	Fotokimikoak		Ultramoreak	
	Kop.	Ezaugarriak	Kop.	Ezaugarriak
INTXAURRONDO barneko txikia	2	400W (T.III)	3	200W
ETXADI barneko handia	3	400W (T.III)	6	200W
ETXADI barneko txikia	2	400W (T.III)	3	200W
BENTABERRI barneko handia	3	400W (T.III)	6	200W
ALTZA barneko txikia	3	400W (CLI)	9	30W
BIDEBIETA barneko handia	12	400W (CLI)	36	30W
BIDEBIETA barneko txikia	3	400W (CLI)	9	30W
ALTZA barneko txikia	3	400W (T.III)	6	200W

Lanpara fotokimikoak sei hilean behin ordeztu behar dira, eta ultramoreak urtean behin. Instalaturako lanpara berriek lehendik zeudenen marka eta ezaugarri berberak izango dituzte. Osterantzean, KUParen zerbitzu tekniko baimena beharko da.

6.3.8. AIREA BANATZEKO HODIEN SISTEMA

Araudiaren arabera mantendu beharko dira airea banatzeko elementuak (hodiak, saretak, bulkada-eta itzulera-ahok), eroan sistemen higienizazioari buruzko araudia bete dadin, UNE 100012 arauari eta/edo lotutako arau espezifiko jarraikiz. Era berean, hodiak hermetiko, herdoildu gabe eta bero ihesik gabe mantenduko dira, eta araudiaren arabera ezartzen den guztia beteko da. Horretarako, ahok jarri beharko dira aireztapen hodietan, horien zati guztiak behar bezala mantendu ahal izateko.

Halaber, atal honetan sartuko da aireztapen hodietako suebaki atek mantentzeko lana.

6.3.9. ELESTA ERREGULAZIO SISTEMA ETA BESTE SISTEMA BATZUK

Erregulazio sistemak mantendu beharko dira klimatizazio-, elektrizitate-, arazte- eta zenbatze-instalazioetan, erreguladoreetan, SAI sistemetan, ordenagailuetan eta kontrol programak (ELESTA, KNX) kudeatzen dituzten elementu guztietan. Barne hartzen dira softwarea, sartzeko pasahitza, eguneraketak eta segurtasun kopiak. Era berean, enpresa adjudikaziodunak ordaindu beharko ditu diseinu aldaketengatik, ekipamendu berriak eskuratzeagatik, daudenak kentzeagatik, ekipamenduetan aldaketak egiteagatik eta abarregatik kontrol programetan egindako aldaketek eragin ditzaketen gastuak.

Programek KUParentzat irekita egon behar dute; horregatik, enpresa adjudikaziodunak programa horietara sartzeko ahalmena ematen duen agiria entregatu beharko dio, KUParen beharren araberrako kudeaketa ahalbidetzeko.

M-bus kontagailuak eta A motako sare analizagailuak instalatu beharko dira, halakorik ez duten eta P4 prestazioko inbertsioetan jasota dauden puntuetan.

6.4. Administrazio kudeaketako eta kontratuaren kontroleko baldintzak.

6.4.1. KONTRATUA KUDEATZEKO DIZIPLINARTEKO TALDEAK

Kontratu osorako organigrama espezifikoko bat egin beharko da, zeinetan argi eta garbi zehaztuko baita nor den kontratuaren arduraduna eta KUParekiko solaskidea, kontratuaren interpretazioa, jarraipena eta kontrola etengabe haren eskura egon dadin.

Pertsona hori arduratuko da KUParekin gutxienez bi hilean behin biltzeaz, kontratuaren analisia eta jarraipena egiteko.

Arduradun horren mende egongo dira kontratuaren zati bakoitzaren arlo arduradunak, jarduera arloen arabera. Arduradun horiek argi eta garbi identifikatuta egongo dira beren arlo espezifikoa, eta KUPeko dagozkien arloekin hitz egiteko sistema bat ezarriko da.

6.4.2. MANTENTZE LAN PREDIKTIBOA, PREBENTIBOA ETA ZUZENTZAILEA KUDEATZEKO SISTEMAK

Mantentze lan prediktiboa, prebentiboa eta zuzentzailea ezinbestekoa da KUPeko instalazioetan energia aurrezteko helburuak lortzeko.

Enpresa adjudikaziodunak instalazioen mantentze lan prediktiboa, prebentiboa eta zuzentzailea kudeatuko ditu, mantentze lanak kudeatzeko programaren baten bidez (PRISMA 3 edo antzekoa). Programa horretan etengabe eguneratuta egongo dira ekipamenduak, gamak, historikoak eta mantentze lanetarako parametro guztiak, eta parametroen iragarpeneko eta kontrol adimenduneko sistemak izango ditu, sistemak automatikoki jardun ahal dezaten, instalazioen funtzionamendu orokorrean hobekuntzak lortze aldera.

KUPak mantentze lanak kudeatzeko sistema hori bistaratzeko eta erabiltzeko aukera izango du.

6.4.3. ENERGIA KUDEATZEKO SISTEMAK ETA ZIURTAGIRIAK

Energia behar bezala kudeatzeko, beharrezkoa da sistema guztietako kontsumo datuak, horien bilakaerari buruzko datuak, tenperaturei buruzkoak, airearen kalitate maileri buruzkoak, elektrizitateari buruzkoak eta abar izatea, aukera izateko sistema integratua erabakiak modu automatikoa hartzeko kudeaketa adimenduneko programen bidez, bai eta erabakiak beste modu batean hartzeko ere.

Horregatik, kontratu osorako kudeaketa sistema integral bat ezarri behar da, neurketako eta ziurtapeneko nazioarteko estandarren arabera (ISO 50001, neurtzeko eta egiaztatzeko nazioarteko protokoloa [EVO], etab.).

KUPak energia kudeatzeko sistema hori bistartzeko eta erabiltzeko aukera izango du.

6.4.4. KANPOKO AUDITORETZEN ETA EBALUAZIOEN SISTEMA.

Egiaztapeneko eta jarraipeneko sistema egoki bat ezarriko da kontraturako, neurketetarako, parametroetarako eta makinetarako, energia globalaren kudeaketa sisteman ezarritako neurketa irizpideei jarraikiz, kontratuaren gauzatze egoera zehaztutako parametroetan eta datetan baloratu ahal izateko. Gutxienez kanpo auditoretza bat egingo da kontratuaren bigarren urtean (nahitaezko inbertsioak egin ondoren) eta beste bat kontratuaren amaieran.

7. ARTIKULUA: KONTRATUAREN GUTXIENKO PRESTAZIOAK.

7.1. P1 prestazioa: energia hornidura (energia kudeaketa)

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Baldintza Teknikoen Agiri honen A eranskinean zehaztutako eraikin eta instalazioen funtzionamendua eta erabilera normala ziurtatzeko behar diren erregaiak eta behar den energia elektrikoa behar adinako kantitate eta kalitatean emateko, bere kontura eta bere erantzukizunpean.

Horretarako, beharrezkoak diren abonu poliza guztiak eta energia guztien hornidura kontratuak sinatu eta kudeatuko ditu, eta KUPari horien egoeraren berri emango dio.

Enpresa adjudikaziodunak erregai zuzkiduraren eta energia horniduren kantitatea eta kalitatea kontrolatuko ditu, bai eta haien erabilera optimoa ere, bere kargura hartutako instalazioetan, Baldintza Teknikoen Agiri honetan zehaztutako baldintzei jarraikiz.

Enpresa adjudikaziodunak zuzkiduran eta horniduran emandako kalitate bermeak araudian zehaztutakoak eta, hala badagokio, erakunde edo enpresa banatzaile edo merkaturatzaileek bermatzen dituztenak izango dira.

Enpresa adjudikaziodunak kasu hauetan soilik egin ahalko dio uko energiak hornitzeari: istilu larriak daudenean, edo edozein arrazoiengatik haren kargupeko instalazioen segurtasuna arriskuan dagoenean, edo Baldintza Teknikoen Agiri honen manuen mendeko instalazioei erabat edo zati batean eragiten dietenean. Baita inguruabarrek pertsonen edo garraioen segurtasunari eragiten diotenean ere.

Orduan, KUPari abisatu beharko dio ahalik eta lasterren, eta elkarrekin erabakiko dute zer neurri hartu behar diren hornidura- eta erabilera-baldintza normalak berrezartzeko.

Energia kudeaketako zerbitzuak alderdi hauek hartzen ditu barne:

- Energia zuzkidurak.
- Energia elektrikoaren eta erregaien fakturak kudeatu eta ordaintzea. Horretarako, enpresa adjudikaziodunak beharrezkoak diren izapideak egingo ditu indarrean dauden edo sinatuko diren hornidura kontratuen titulartasuna eta kontsumo elektrikoaren fakturen helbideratze

datuak aldatu eta bere izenean jartzeko. Kontratu horiek KUParen titulartasunekoak izango dira berriz ere, agiri honen xede den energia zerbitzuen kontratua amaitu ondoren.

- Enpresa adjudikaziodunak bidea emango du KUPak edo Udalak aukera izan dezaten kontsumoaren datuak zuzenean enpresa hornitzaileei eskatzeko; horretarako, hornitutako HPKUen zerrenda eta, beharrezkoa izanez gero, idatzizko baimen bat emango dizkie.
- Energia banatzen edo merkaturatzen duten enpresekin egindako kontratuak kudeatzea.
- Erosotasuna bermatzeko konpromisoa (giroko tenperatura eta hezetasun erlatiboa, funtzionamendu ordutegia, ur bero sanitarioaren tenperatura, igerilekuetako uraren tenperatura, argiztapen mailak, etab.), instalazio bakoitzerako egokiak diren baldintzak mantenduz, Baldintza Teknikoen Agiri honen C eranskinean zehaztutakoaren arabera.
- Beharrezkoa den energia termikoa eta elektrikoa prezio finko batean hornitzeko konpromisoa. Prezio hori energiaren kostuaren aldaketaren arabera soilik aldatuko da (eta ez energia kontsumoaren arabera, zeinetan enpresa adjudikaziodunak galdu-gordean jardun beharko baitu), kontratuaren xede diren eraikin guztien berokuntzako, hozte sistemako, ur bero sanitarioko eta argiztapeneko beharrak betetzeko.
- Kontratuaren esparruko eraikin eta instalazioen energia ziurtagiriak gauzatzea, pleguan ezarritako nahitaezko inbertsioak eta enpresa adjudikaziodunak bere borondatez eskainitakoak egin ondoren.
- Bere gain hartzea kontrol erakunde ziurtatu independente batek instalazioen energia auditoretzak egitearen kostua. Kontratua hasi eta 5 urtera auditoretza bat egingo da, eta beste bat kontratuaren amaieran. Auditoretzetan kontratuaren adierazleen jarraipena egingo da, eta inbentarioan jasotako makinaren mantentze- eta amortizazio-egoera ebaluatuko da, barne hartuta onartutako neurketa- eta egiaztapen-planaren arabera lortutako aurrezkiak, erosotasun parametroak eta mantentze adierazleak (erabilgarritasuna, bitartekoak).

D eranskinean, energia mota bakoitzaren 2014ko energia kontsumoak jasoko dira, baina datu hori ez da zehatza izango, ezta loteslea ere kontratuari dagokionez, eta lizitatzailentzat orientagarria soilik izango da.

7.2. P2 prestazioa: mantentze lan prediktiboa, prebentiboa eta zuzentzailea.

P2 prestazioaren eskainitako prezioak barne hartzen ditu enpresa adjudikaziodunak eskatutako giza baliabideei eta baliabide materialei dagozkien gastu guztiak, aurreikusitako mantentze lan prediktibo, prebentibo eta zuzentzaileko prestazioak bermatzeko.

Enpresa adjudikaziodunak prestazio hauek emango ditu A eranskinean zehaztutako eraikin eta instalazioetako instalazio tekniko guztietan, bere erantzukizunpean:

7.2.1. INSTALAZIOEN GIDARITZA ETA ZAINTZA.

- Gidaritzak eta zaintzak barne hartzen ditu instalazioen funtzionamendua kontrolatu eta menderatzea ahalbidetzen duten zeregin guztiak. Horretarako, enpresa adjudikaziodunak betekizun hauek izango ditu:

- Kudeaketa sistema bat eta gidatze eta mantentze zerbitzu integral eta malgu bat ezartzea, zeina gai izango den eraikinen eta instalazioen baterako kontrola modu homogeneo batean zentralizatzeko.
 - Mantendu beharreko eraikinen egoitzetan behar diren langile kualifikatuak jartzea, erakundearen beraren laguntzarekin eta programa informatiko propioekin, gidaritzan eta mantentze lanen zuzendaritzan, kontrolean eta kudeaketan jarduteko.
 - Agiri honetan zehaztutako prestazio guztiak gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak ematea.
- Enpresa adjudikaziodunak instalazioen erregulazio- eta oreka-sistemen kontrola ziurtatu behar du, lokalen tenperatura ahalik eta uniformeena izan dadin.
 - Enpresa adjudikaziodunak erabakiko du zer baliabide erabiliko diren helburu horiek betetzeko, eta horietaz arduratuko da, bereziki alderdi hauetaz:
 - Instalazioak abiarazi eta gelditzeaz
 - Beharrezkoak diren doikuntzak eta orekatzeak egiteaz
 - Ekipamenduen funtzionamendu parametroen jarraipena, saiakuntzak eta ekipamenduen funtzionamendu egokia egiaztatzeke manioabrak egiteaz.
 - Instalazioen zaintza orokorra.
 - Ohiko errondak eta ikuskapenak.
 - Bestalde, gidatzeko eta zaintzeko, litekeena da enpresa adjudikaziodunak baldintzapeko mantentze prebentiboko edo mantentze lan zuzentzaileko ekintzak egin behar izatea.

7.2.2. ZERBITZUA 24H/365E.

- Enpresa adjudikaziodunak, matxurarik edo funtzionamendu etenik egonez gero, dagozkion esku hartzeak ziurtatu beharko ditu, gehienez ere ordu erdiko epean (1/2 h) eraginpeko establezimendua irekita dagoen ordutegian, eta bi orduko epean (2 h) ordutegi horretatik kanpo, erabiltzaileei zuzenean eragiten dieten matxura kritikoetan. Gainerako kasuetan, abisua eman eta hurrengo 24 orduak baino lehen erantzungo da.
- Enpresa adjudikaziodunak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu eragiketa horiek ahalik eta gutxien eragin dezaten eraikinen eta erabiltzaileen funtzionamendu normalean.
- Horretarako, enpresa adjudikaziodunak arreta zerbitzu bat antolatuko du, 24 orduko arreta emateko urteko 365 egunetan, eta nola jardun behar den ezarriko du alarma kritikoak, dagozkien 24 orduko zerbitzuek alarma horiek bistaratzeko sistemak, eta enpresa adjudikaziodunaren eta KUParen arteko egiaztapen- eta komunikazio-prozedurak kudeatzeko.
- Batzuetan, KUParen barrutietan, kirol jardueraren edo bestelako jardueren (kontzertuak eta ikuskizunak) salbuespenezko kondizioak direla eta, KUPak hala eskatuta mantentze lanetako teknikari batek egon behar du beti hor (erretena), jarduera muntatu, gauzatu eta desmuntatzen den bitartean, hornikuntza bermatzeko. Ezohiko erreten horiek enpresa adjudikaziodunak kontratuaren lizitazio prozesuan eskainitako orduko prezioan fakturatuko dira.
- Batzuetan, KUPak kontratuaren prestazioekin zerikusirik ez duten baina horien osagarri diren lanak egiteko eskatu ahal izango dio enpresa adjudikaziodunari, esaterako, zaharberritzeak, handitzeak eta abar. Aparteko lan horietako langileen gastuak enpresa

adjudikaziodunak kontratuaren lizitazio prozesuan eskainitako orduko prezioan fakturatuko dira.

7.2.3. MANTENTZE LAN PREBENTIBO SISTEMATIKOA.

- Enpresa adjudikaziodunak beharrezkoak diren mantentze lan prebentibo sistematikoko prestazio guztiak egin behar ditu, araudiari jarraikiz, materialen eta horien erabileraren eta eraikitzaileen zehaztapenen arabera, eta bereziki Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan (1027/2007 Errege Dekretua) eta Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroan (842/2002 Errege Dekretua) zehaztutakoei jarraikiz. Berariaz sartzen dira bertan Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan sartu berri diren eragiketak (238/2013 ED), Erregelamendu horren 3.3 Jarraibide Teknikoaren 3.3 taulako 38. eta 39. eragiketak.
- Enpresa adjudikaziodunak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu eragiketa horiek ahalik eta gutxien eragin dezaten eraikinen eta erabiltzaileen funtzionamendu normalean, KUParekin koordinatuta eta aplikagarriak diren araudiei jarraikiz.
- Egin beharreko gutxieneko mantentze lanak E eranskinean jasotakoak izango dira.
- Baldin eta enpresa adjudikaziodunak, bere ekimenez eta KUPeko kontratuaren arduradunaren alde aurreko baimenik gabe, hobekuntza lanak egiten baditu, edo lanok baldintza agiri honetan hondatutako elementu baten gainean behin eta berriz jardutea saihesteko konponketarako ezartzen diren lanen irismena gainditzen badute, lan horiek ere kontratuaren prezioan sartuko dira, eta ez dute kostu gehigarriak eragingo.

7.2.4. BALDINTZAPEKO MANTENTZE LAN PREBENTIBOA ETA MANTENTZE LAN ZUZENTZAILEA.

- Baldintzapeko mantentze lan prebentiboak instalazioen gidaritzatik eta zaintzatik eratorritako behaketetan oinarrituta hartzen du esku, nagusiki.
- Enpresa adjudikaziodunaren erantzukizunaren eta ekimenaren mende egongo dira behaketen maiztasuna eta nolakotasuna eta erabakitzeko parametroak eta irizpideak.
- Enpresa adjudikaziodunak mantentze lan zuzentzaileko esku hartzeak 2 orduko epean egingo ditu eta beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu eragiketa horiek ahalik eta gutxien eragin dezaten eraikinen eta erabiltzaileen funtzionamendu normalean.
- Eraikinak eta eraikineko instalazioek izan ditzaketen anomaliak konpontzeaz eta behar dituzten konponketak egiteaz gain, mantentze lan horiek barne hartzen dituzte, halaber, kanpoko enpresek egiten duten lanean laguntzea, bai eta KUParen arduradun teknikoen bitartez antolatzen diren askotariko muntaketa, jarduera eta ekitaldietarako beharrezkoak diren eskaerei erantzutea eta horietan laguntza teknikoa ematea ere.

7.2.5. PRODUKTU KONTSUMIGARRIEN HORNIKUNTZA ETA KUDEAKETA.

- Ohiko mantentze lanen prestazioak gauzatzeko, enpresa adjudikaziodunak askotariko kontsumigarrien (hornidura mekaniko eta elektriko txikiak) hornikuntza eta kudeaketa ziurtatu behar du, bereziki: olioak, koipeak, trapuak, tefloia, zinta itsaskorra, bonbillak, pilotuak, fusibleak, uhalak, iragazkiak, desugertzaileak, desinkrustatzaileak, deshidratatzaileak, hozgarriak, konpresoreetarako olioak, deskaltzifikatzeko gatzak, argiak, larrialdietako argiak, etab. Oro har, mantentze lan egokiak egiteko beharrezkoak diren elementu guztiak, osagai horien eskuragarritasuna bermatuz, prestazioak gauzatzeko orduan atzerapenak saihesteko.
- Baldintzapeko mantentze lan prebentiboaren eta mantentze lan zuzentzailearen esparruan, enpresa adjudikaziodunak akatsak dituzten pieza eta ekipamenduak eta hondatutako elementu guztiak ordezkatu behar ditu, eta gutxienez haien pareko ezaugarriak dituzten beste batzuk jarri beharko ditu, Baldintza Teknikoen Agiri honetan zehaztutako instalazio guztietan.
- Ordezko piezak, materialak edo ekipamenduak hornitu eta jartzea, eta beharrezkoak diren beste gastu guztiak, Berme Osoaren barruan sartzen dira, eta enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7.2.6. ARAUZKO KONTROLETARAKO LAGUNTZA TEKNIKOA (OCA-K ETA ZIURTAGIRIAK).

- Prestazioaren barruan sartzen da indarreko eta etorkizuneko araudiaren arabera kontratuak irauten duen bitartean sistema eta ekipamendu guztiek (behe tentsioa, transformazio zentroak, kogenerazio ekipoak, galdarak, biltegiak, etab.) nahitaez egin behar dituzten arauzko kontrol (OCA) guztiak.
- Era berean, prestazioaren barruan sartzen dira ziurtagiri guztiak (energia auditoretzak, ingurumen auditoretzak, askotariko neurketako gailuen ziurtagiri metrologikoak, etab.).
- Enpresa adjudikaziodunak KUPari lagunduko dio ziurtatutako kontrol erakunde batek edo KUPak berak egindako arauzko bisitetan.
- Enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu arauzko kontroletatik eratorritako kostuak, esaterako, konponketak, ordezkapenak, arau aldaketan ondoriozko aldaketak, eta abar (ekintza bandalikoek kasuan izan ezik).

7.2.7. MANTENTZE LANETAKO DOKUMENTUAK EGUNERATZEA.

- Enpresa adjudikaziodunak eraikin bakoitzeko mantentze lanen liburua eguneratuko du, indarrean dagoen legediaren arabera. Mantentze liburu hori enpresa adjudikaziodunak kudeatu eta osatuko duen mantentze lanetako programa informatiko batean oinarrituta prestatuko da, eta alderdi hauek jasoko ditu:
 - Mantentze lan prebentibo sistematikoko bisitak.
 - Baldintzapeko esku hartze prebentiboak eta esku hartze zuzentzaileak.
 - Bere ekimenez edo KUParen ekimenez egindako aldaketak eta lanak.
 - Egindako neurketen eta saiakuntzen emaitzak.
- Eragiketa bakoitzerako, hauek aipatuko dira:

- Hasierako eta amaierako eguna eta ordua.
 - Eragiketa mota.
 - Zer pieza ordezkatu diren.
 - Dagozkion oharrak.
- Baldintza Teknikoen Agiri honen xede diren instalazio guztien jarraipena egiteko mantentze lanen programa KUParen esku geratuko da, une oro kontsultatu ahali izan dezan.
 - Era berean, enpresa adjudikaziodunak ondorengo dokumentazio hau eguneratuta eduki beharko du, formatu informatikoan:
 - Makina gela guztien funtzionamendu eskemak (dwg formatua).
 - Segurtasun-mekanismo eta -elementuen kokapena (dwg formatua).
 - Instalazio elektrikoaren eskema haribakarrak (dwg formatua).
 - Gela bakoitzeko instalazio osagarrien –koadroak, tangak, ponpak, etab.– funtzionamendu eskemak (dwg formatua).
 - Makina geletako ekipamenduen eta oinarrizko elementuen inbentarioa, behar bezala eguneratuta eta balorizatuta (excel formatua).
 - Lanpara eta argien inbentarioa, behar bezala eguneratuta eta balorizatuta (excel eta dwg formatuak).
 - Klimatizazio sistemen banaketa eta eskema funtzionalak (dwg formatua).
 - ELESTA eta KNX kudeaketa sistemak, horien alarmak, pantailak, planoak, programen kopiak, etab.
 - Enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu dokumentazio teknikoko lan horien ondoriozko gastuak.

7.2.8. MAKINA GELAK, KOADRO ELEKTRIKOAK, MAKINAK ETA EKIPAMENDUAK MANTENDU ETA GARBITZEA.

- Enpresa adjudikaziodunak makina gelak txukun eta garbi daudela ziurtatuko du, gauza bera erreserbatutako lokalei, bere kargura hartutako instalazioen ordezeko ekipamendu eta piezak gordetzeko tokiei eta ekipamendu eta makinenei dagokienez, halako moldez non itxura estetiko txukun eta garbia izango baitute; horretarako, gutxienez urtean behin egin beharko ditu garbiketa orokorreko lanak, baita zoruak, hormak, txapak eta abar pintatu ere.
- Garbiketa orokorraz gain, une oro txukuntasun- eta garbitasun-irizpideak mantenduko dira mantentze lanak egiteko, eta erabilitako guneak garbi eta material hondarrik gabe utzi beharko dira. Galdara geletan, ur bero sanitarioan, kogenerazio ekipoetan eta ekipo elektrogenoetan, makina geletan eta abarretan, gutxienez hilean behin egingo da garbiketa.
- Garbiketaz gain, enpresa adjudikaziodunak makina- eta ekipamendu-geletan oinarrizko egokitzapen lanak egin beharko ditu, besteak beste, gela pintatzea gutxienez 5 urtean behin eta KUPak eskatzen duen guztietan.
- Ekipamenduak, argiak eta klimatizagailuak garbi mantenduko dira, berriazko mantentze lanetarako ezartzen diren protokoloei jarraikiz, duten argi errendimenduaren arabera.
- Mantentze lanetako, obretako eta konponketetako hondakinen kudeaketan prebentzioa eta birziklatzea lehenetsiko dira. Kudeatzaile baimenduek kudeatuko dituzte hondakinak. Enpresa adjudikazioduna hondakinen ekoizle gisa agertuko da, eta baimenak lortzeaz eta dagozkion erregistroetan inskribatzeaz arduratuko da. Enpresa adjudikaziodunak KUParen eskura jarriko ditu haren instalazioetan sortutako hondakinei buruzko datuak.

7.2.9. Prestazioen kudeaketa.

a) Kontsiderazio orokorrak:

Enpresa adjudikaziodunak jarraian zehaztutako prestazioen kudeaketaren jarraipena egiteko beharrezkoak diren dokumentuak zehaztu eta ezarri beharko ditu:

- Enpresa adjudikaziodunak Berme Osoaren esparruan egingo dituen lanen behin-behineko zerrenda zehaztea urtero.
- Urteko behin-behineko aurrekontua prestatzeko beharrezkoak diren azterketa teknikoak eta finantzarioak prestatzea, KUPeko zerbitzu teknikoekin lankidetzan.
- Lizitazio honen xede diren instalazioen eta ekipoen zerrenda eguneratzea urtero.

b) Hasierako txostena:

Enpresa adjudikaziodunak egiaztatuko ditu lehiaketa honen xede diren instalazioak, aurretiko txosten orokorra gorabehera, kontratuaren indarraldiko lehen hilabeteetan. Epe hori amaitzean, txosten xehe bat egingo du, kontratua gauzatzeari eragin diezaioketen anomalia eta gabeziei buruz. Txosten hori eskusiboa izango da eta, beraz, adjudikaziodunak isilbidez onartuko du horretan jaso ez den guztia, baina, ondoren, kontratazio horretatik eratorritako betebeharrak eskatu ahal izango zaizkio, egoki gisa onartutako instalazio, ekipamendu edo zati horiei dagokienez. KUPari aurkeztuko dio txosten hori, hautemandako anomaliak eta akatsak zuzentzeko balorazio ekonomikoarekin batera.

KUPak bere zerbitzu teknikoen txosten bidez edo txosten hori hirugarren bati eskatuta baloratuko du anomalia horiek badauden ala ez. Badaudela onartzen bada, KUPak horiek zuzentzea edo dagokion konponketa ez egitea erabaki ahal izango du; orduan, enpresa adjudikazioduna erantzukizunetik libratuko da, irregulartasunak salatu diren instalazioen funtzionamenduari dagokienez.

c) Instalazioen inbentarioa:

Agiri honen E eranskinean, mantentze lanen xede diren instalazioak deskribatzen dira, informazio gisa. Alabaina, kontratua gauzatzen hasi denetik gehienez ere bi hilabeteko epean, enpresa adjudikaziodunak instalazioen inbentario osoa egin eta aurkeztu beharko dio KUPari, behar bezala kudeatu eta identifikatzeko.

Inbentarioak jarraian deskribatzen den informazioa jaso beharko du, gutxienez, instalazio bakoitzaren ekipamendu bakoitzari buruz:

- Marka, modeloa eta ezaugarri teknikoak.
- Ekipamendu bakoitza osatzen duten unitateen kopurua, esaterako, pantailak, hodi fluoreszenteak, su detektagailuak eta antzekoak.
- Ekipamenduen unitate bakoitzaren kokapena.
- Ekipamendu eta/edo instalazio horien egoera eta balio bizitza.

- Gaur egungo egoeran egindako gutxi gorabeherako balorazio ekonomikoa.

Inbentario hori eguneratuta eduki beharko da uneoro.

d) Mantentze lanetako plana

Kontratuaren lehen hiru hilekoan, enpresa adjudikaziodunak oinarrizko mantentze plana aurkeztuko du. Horretan, mantentze lan prebentiboko eta arauzko mantentze lanetako zereginak zerrendatuko dira, eta gauzatu beharreko jarduerak eta horien aldizkakotasuna zehaztuko da. Planak instalazio bakoitzerako fitxa bat izan behar du, zeinetan instalazio bakoitzaren deskribapena eta ezaugarri teknikoak jasoko baitira.

Plan hori ez da baztertzailerik izango, eta nahikoa irekia izango da eraikinen beharretara egokitu ahal izateko. Halaber, behin betiko mantentze plana idazteko, obrari eta instalazioei buruzko dokumentazioa eskuratzeko aukera emango zaio adjudikaziodunari, azter dezan.

Mantentze lanetako langileen eta arlo horretatik kanpoko jarduna plan horren edukian oinarritu behar da erabat, eta horren jarraibideak bete behar dituzte. Gidaliburu horren egiturak malgua izan behar du, eta denborarekin sortzen diren aplikazio berriak txertatzeko aukera eman behar du.

KUPak onartu behar ditu plan horiek.

e) Liburu ofizialak

Enpresa adjudikaziodunak beharrezkoak diren mantentze lanen liburu ofizial guztiak eduki beharko ditu kontratuaren lehen hilabeteetan.

f) Hiru hilean behingo txostena

Hiru hilean behin, adjudikaziodunak instalazioen egoerari buruzko txostena aurkeztuko du euskarri digitalean eta ikuskapen- eta mantentze-lanak jasoko ditu horretan. Hala, ikuskatutako ekipamendua, ikuskapena egin den eguna eta emaitza, mantentze lanetako planaren betetze mailaren ehunekoa eta dagozkion oharrak ere jasoko ditu. Era berean, Mantentze lanetako Plana edo instalazioak hobetzeko proposamenak bilduko ditu, gutxienezkoen gidoi honen arabera:

- Mantentze lanetako plana: fitxa teknikoaren eguneraketa eta proposatutako hobekuntzak.
- Egindako jarduerak: ekipamendua, data, lanak egin dituen teknikaria, emaitzak, neurri zuzentzaileak eta, hala badagokio, neurri horien balorazio ekonomikoa, ez badaude lehendik sartuta.
- Jardueren banaketa, mantentze lan motaren eta orduen ehunekoaren arabera
- Kontsumoen erregistroa eta aldizkako analisien datuak.
- Aldi horretan aldaketak izan dituzten ekipamendu eta instalazioen eguneraketa.
- Egindako eta hurrengo aldirako aurreikusitako ziurtagiri edo ikuskapenak.

g) Urteko txostena

Urte naturalaren amaieran, eta hiru hilean behingo txostenez gain, laburpen txosten bat entregatuko da, zeinak hiru hilean behingo txostenaren atal berak izango baititu.

Gainera, urteko txostenean instalazio bakoitzaren izena, helbidea, HPKB zenbakiak, urteko kontsumoa eta puntu horretan kontsumitutako energia berriztagarriaren berme kopurua (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak emanak) jasoko dira.

Dokumentazio hori guztia euskarri informatikoan emango da.

7.3. P3 prestazioa: berme osoa (mantentze lan zuzentzailea ordezkapenekin).

Berme Osoa zentzu zabalean ulertuko da, kontuan hartuta kontratuaren barneko eraikin eta sistemek etengabe funtzionatu behar dutela edozein egoeratan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, halako moldez non, haien balio bizitza amaitzean, lehendik zeudenen antzera funtzionatzen duten ekipamendu berrituak egongo baitira. Irizpide orokor hori kontuan hartuta:

- Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Baldintza Teknikoen Agiri honen F eranskinean zehaztutako instalazio eta ekipamenduen funtzionamendu ona bermatzeko beharrezkoak diren konponketa-, ordezte- eta berritze-lanak egiteko.
- Horretarako, bere gain hartzen du instalazioak funtzionamendu egoera onean egotea lortzeko erantzukizun osoa; horretarako, behar den guztietan konpondu eta berrituko ditu mota guztietako materialak, bai higadura normaleko kasuetan bai ustekabeen hondatu direnean, baita beste edozein arrazoi dela medio ere.
- Prestazio honen ondorioz sortzen diren konponketa- eta birjarpen-gastuak, barne hartuta eskulana, desmuntaketa eta muntaketa, garraioa eta, jakina, birjartzeko eta konpontzeko materialaren kostua, enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.
- Baldin eta, betebeharraren esparruan, enpresa adjudikaziodunak ekipamendu bat edo material multzo bat osorik ordeztu behar badu, lehenik eta behin KUPari jakinarazi beharko dio, hark erabaki dezan ea egokia den ekipamenduok etorkizuneko erabilerara eta ustiapenera hobeto egokitutako izaera edo potentzia duten ekipamenduez ordezkatzeara, teknikaren bilakaera eta bi aukeren balorazio ekonomikoa kontuan hartuta.
- Aukeratutako konponbideen arabera, KUPak, egoki baderitzo, ordezkapen kostuetan parte hartu ahal izango du, edo enpresa adjudikaziodunarekin beste akordio bat egin dezake akta gehigarri baten bidez, bai eta beste edozein irtenbide iradoki ere, kontratua aldatu ondoren, betiere.
- Irtenbide teknikoak hautatzeko zailtasunak izanez gero, bi alderdiek adostutako erakunde tekniko kualifikatu batera jo ahal izango dute.
- Enpresa adjudikaziodunak, berme osoa emateko duen betebeharraren esparruan, ahalik eta arretarik handienaz eta bere ekimen eta erantzukizun osoaz esku hartu beharko du.
- Enpresa adjudikaziodunak KUPari jakinaraziko dio eta harekin adostuko du instalazioen geldialdi partzialaren data, esku hartze horiek funtzionamenduaren kondizioetan eragin ditzaketen gorabeherak minimizatzeke.
- Kontratua betetzeko behar diren material guztiak, jasogailuak, garabiak, zisterna kamioiak, ganbera termografikoak eta kontratua betetzeko beharrezkoak diren elementu eta/edo ekipamendu guztiak enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7.4. P4 prestazioa: instalazioak hobetu eta berritzeko nahitaezko obrak.



Kirol Instalazioen Saila

Departamento de Instalaciones Deportivas:

943 48 15 96 - www.donostiakirola.eus

Horretarako, gauzatu aurretik, enpresa adjudikaziodunak lanak egiteko ordutegiak eta hartu beharreko segurtasun neurriak adostuko ditu KUParekin.